

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Osasunak profesionalei jarraibideak ematen dizkie adingabeen arretan sortutako gatazkak konpontzeko

*Dokumentuak zenbait alderdi jorratzen ditu, adingabeak baimena emateko duen gaitasuna esaterako, eta desadostasunak daudenenean adingabearen erabakia edo gurasoena zein egoeratan nagusitu behar den*

Astelehena, 2016.eko apirilak 25

Osasun Departamentuak dokumentu bat landu du eta, bertan, adingabeen osasun-arretan sortutako gatazkak konpontzera bideratutako jarduera-jarraibideak jasotzen dira, ekintza medikoen aurrean baimena emateko orduan sortutako desadostasun-kasuetan bereziki, honako egoera hauetan: ohikoetan, bizitza edo osasunerako arrisku larriko egoeretan eta bizitza arriskuan dagoen larrialdi-egoeretan. Dokumentua osasuneko profesionalei igorri zaie, triptiko-laburpen bat egin da, eta azken hori herritarren esku jarriko da osasun-zentroetan eta larrialdi-zerbitzuetan.

Testua gaur goizean aurkeztu du Osasuneko kontseilari Fernando Dominguezek, eta harekin batera izan da Departamentuko idazkari tekniko nagusi Jose Asian nahiz Osasun Mentaleko zuzendari kudeatzaile Alfredo Martinez Larrea. Bertan, zenbait gai jorratzen dira berriaz, esate baterako: baimen hori emateko adingabeak zer gaitasun duen, eta desadostasun kasuetan zein egoeratan nagusitu behar den adingabearen erabakia edo gurasoena.

Era praktiko batean eta indarrean dagoen legeriatik abiatuz, gatazkaren ustezko [egoera](#) nagusiak aurkezten ditu, eta nola konpon daitezkeen: oro har, pazientearen erabakia nagusituko da emantzipatutako adingabeen kasuan, ezgaituak ez diren eta ezgaituta ez dauden adingabeetan (16-17 urte), eta adingabe helduen kasuan (12-16 urte). Heldutasunaren balorazioa mediku arduradunari dagokio, ekintza mediko zehatz bakar baterako, eta historia klinikoa jaso beharko da. Aldiz, erabakia ordezkariarena izango da, judizialki aldatutako gaitasuneko adingabeen kasuan, adimen aldetik nahiz emozionalki ezgaituak diren 16 urteko adingabeetan eta 12 urte baino gutxiagokoen kasuan.

Bizitzarako edo osasunerako arrisku larriko egoeretan, adingabea heldugabetzat jotzen denean eta ordezkarien erabakia adingabearen interesen aurkakoa dela irizten denean, egitateak epaileari edo fiskalari jakinarazi beharko zaizkio. Gainera, bizitza arriskuan dagoen larrialdi-egoeretan, adingabearen irizpidea (heldua edo ez heldua) eta ordezkariena esku hartzearen aurkakoa denean, esku hartze hori egin beharko da profesionala honako honetan babestean: betebeharraren

betearazpenean eta beharrear e egoeran.

Dokumentuak, halaber, argibide batzuk jasotzen ditu gurasoen arteko desadostasunak daudenean, eta azken horiek direnean baimena ematen dutenak. Bizitza arriskuan izan daitekeen egoeretan nahiz garrantzi txikikoak edo errutinazkoak diren erabakietan eta adingabeen osasunari lotutakoak direnak, guraso laguntzailearen baimena nahikoa izango da. Adingabearen bizitzarako edo osasunerako garrantzizkoak edota larriak diren erabakietan, bien baimena beharko da; haietako bat ados ez balego, agintari judizialetera jo ahalko du, eta azken horiek emango dio aitari edo amari erabakitzeko ahalmena.

Medikuen datuen tratamenduari dagokionez (baimena emateko adingabearen gaitasunaren antzeko gaia), adingabeak bere ordezkariari historia klinikoa eskuratzea eragozten badie, eskuratze hori ez da baimenduko 16 eta 17 urteko adingabeen kasuetan eta heldutzat jotako 12-16 urtekoen artean.

Dokumentuaren barnean, gainera, berariazko kasuen zerrenda bat jasotzen da, eta zein diren beharrezko baldintzak: hala, pazientea adinez nagusia izatea behar da eta, beraz, ordezkariaren baimena laguntza bidezko ugalketa-tekniketarako, inter vivos dohaintzarako eta sexua aldatzeko (adingabeko transexualek hormona bidezko terapia jaso ahalko dute). Adingabeen haurdunaldiaren etenduretan, adingabearen nahiz lege-ordezkariaren berariazko baimena behar da. Aurreratutako borondateak emateari ere erreferentzia egiten zaio (16 urtetik gorakoak eta 12-16 urte arteko adingabe helduak), eta baita zenbait gairi ere: ikerketa biomedikoa, botiken bidezko entsegu klinikoak, osasun mentaleko zentroan sartzea, kontrazepzioa eta odol-transfusioak Jehovaharen lekuko kasuan.

Testu hau indarrean dagoen araudian oinarrituz egin da: 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa, Nafarroako Foru Komunitateko osasun-arloko pertsonen eskubide eta betebeharrei buruzkoa; 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, adingabearen babes juridikoari buruzkoa; eta Kode Zibilarena.